



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko otsailaren 9a

15. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Nafarroako Gobernuak entitate eta elkarte batzuei emandako diru-laguntzei buruzko fiskalizazio txostena, 2014koa, Kontuen Ganberak egin (2. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Nafarroako Gobernuak entitate eta elkarte batzuei emandako diru-laguntzei buruzko fiskalizazio txostena, 2014koa, Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 5ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako Nafarroako Gobernuak entitate eta elkarte batzuei emandako diru-laguntzei buruzko fiskalizazio txostena, 2014koa, ERABAKI DA:

**1.** Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

**2.** Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Nafarroako Gobernuak entitate eta elkarte batzuei emandako diru-laguntzei buruzko fiskalizazio txostena, 2014koa, Kontuen Ganberak egina**

**AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (3. or.).
  - II. Helburua eta norainokoa (3. or.).
    - II.1. Helburua (3. or.).
    - II.2. Norainokoa (3. or.).
  - III. Legezketasunaren betetzeari buruzko iritzia (4. or.).
  - IV. Oharpenak, emandako iritzian eraginik ez dutenak, eta gomendioak (5. or.).
    - IV.1. Oharrak (5. or.).
    - IV.2. Gomendioak (7. or.).
- Eranskina. Aztertutako diru-laguntzak eta laguntzak (8. or.).

## I. SARRERA

Kontuen Ganberak 2015eko ekitaldi-programan sartu du fiskalizazio-lan bat egitea, "Nafarroako Gobernuak eta haren erakunde autonomoek entitate eta elkarte batzuei 2014ko ekitaldian emandako diru-laguntzetan" legezkotasuna betetzeari buruzkoa.

Txostenak lau atal dauzka, sarrera hau barne; bigarrenean, egindako lanaren helburuak erakusten ditugu. Hirugarrenean, gure iritzia ematen dugu aztertutako diru-laguntzetan legezkotasuna betetzeari buruz. Azkenean, laugarrenean, lortutako ondorio edo oharpenak jasotzen ditugu, bai eta laguntza horien kudeaketa hobetze aldera ematen ditugun gomendioak ere.

Txostenak eranskin bat badauka, non aztertutako laguntzak jasotzen baitira.

Azterketa lana 2015eko apiriletik ekainera bitartean egin dute auditoriako teknikari batek eta auditore batek osatutako lantalde batek, eta Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboan lankidetzan ere izan dute.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako Gobernu departamentu eta erakunde autonomoetako langileei lan hau egiterako eman diguten laguntzagatik.

## II. HELBURUA ETA NORAINOKOA

### II.1. HELBURUA

Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Nafarroako Gobernuak eta haren erakunde autonomoek entitate eta elkarte batzuei 2014ko ekitaldian emandako diru-laguntzetan legezkotasuna betetzeari buruzko fiskalizazioa egin dugu.

Honako hau izan da gure txostenaren helburua:

- Aztertzea ea aplikatzekoa den araudia bete den laguntza horiek eman, justifikatu, ordaindu eta kontabilizatzeko faseetan.
- Egiaztatzea onuradunek aurkeztutako justifikazioa egokia den.
- Kudeatzaileek justifikazio hori dela-eta egin duten berrikuspen-prozesua aztertzea, diru-laguntzak eman zireneko helbururako erabili direla bermatze aldera.

Metodologia gisa, lana Espainiako Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz gauzatu da, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun prozedura tekniko guztiak bildu dira; arau horien barruan, "Betetzeari buruzko fiskalizazio arauak" izeneko ISSAI-ES 400 araua aplikatu da.

### II.2. NORAINOKOA

Gure lana zentratu da Nafarroako Gobernuaren aurrekontu orokorretako 48. eta 78. aurrekontu-artikuluetan jasotako diru-laguntzetan: "familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeetara egindako transferentzia arruntak/kapital-transferentziak.

Artikulu horietatik, txosten honen eraginetarako, honako diru-laguntzen kontzeptuak ez dira kontuan hartu:

- Arruntak. Pentsio asistentzialak, mendekotasuna, beka, lanbide-elkargoak eta ikastetxeak.
- Kapitalekoak. Ikastetxeak eta etxebizitzetarako laguntzak.

- Aurreko fiskalizaziotik salbuetsita dauden diru-laguntza eta laguntza txikiak<sup>1</sup>, zeren eta Nafarroako Gobernuaren Kontu-hartzailera Nagusiaren finantza-kontrol iraunkorreko jarduketetan sartzen baitira.

Azken batez, lana zentratu da, txosten honen eranskinean ikus daitekeen bezala, honako arlo hauetako irabazi asmorik gabeko erakundeei emandako diru-laguntzetan: kirola, kultura, nekazaritza eta basogintza, kontsumoa eta aisialdia. Aztertutako diru-laguntzen guztizko zenbatekoak 3,38 milioi egiten du.

Gure lanaren denbora-esparrua funtsean Nafarroako 2014ko ekitaldiko aurrekontu orokorren exekuzioan zentratuta dago.

Berrikusten ari garen jarduera honako hauetan dago araututa oinarrizkoenean: Diru-laguntzei buruzko 11/2005 Foru Legea eta haren geroko aldaketak; 59/2013 Foru Dekretua, Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargurako diru-laguntzen onuradunen gardentasunerako betebeharrak arautzen dituena; eta deialdietako kasuko oinarri erregulatzailerak eta kasuan kasuko hitzarmenak.

### **III. LEGEZKOTASUNAREN BETETZEARI BURUZKO IRITZIA**

#### *NAFARROAKO GOBERNUAREN ERANTZUKIZUNA*

Nafarroako Gobernua, diru-laguntza publikoen kudeaketaren arloko organo eskudunen bitartez, bermatu beharko du emandako diru-laguntzak eta haiei buruz egoera-orri finantzarioetan islatutako informazioa bat datozela araudi indardunarekin.

Halaber, Gobernua da diru-laguntza horien kudeaketa eta erregistroan legeen ez-betetzerik eta iruzurraren edo akatsen ondoriozko oker materialik ez dagoela bermatzeko beharrezkoa den barne-kontrolaren erantzulea.

#### *NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA*

Gure erantzukizuna da iritzi bat ematea aztertutako diru-laguntzak eman, justifikatu, ordaindu eta erregistratzerakoan legezketasuna betetzeari buruz. Horretarako, hura egin dugu Kanpo Kontroleko Erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarrizko printzipioei jarraituz.

Printzipio horiek exijitzen dute fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin dezagun halako moduz non arrazoizko segurtasun bat lortuko dugun diru-laguntzak direla-eta aztertu dugun jarduera Nafarroako Gobernuak 2014ko ekitaldian aurrera eramandakoa– aplikatzekoa den araudiaren arabera izateari buruz alderdi esanguratsu guztietan.

Gure azterketaren honako honetan etzan da: egiaztatzea, hautapropa eginez eta beharrezkotzat jo diren prozedura teknikoak aplikatuz, diru-laguntza publikoak emateari buruzko araudian ezarritako alderdi muntadunak bete direla. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne direla kontabilitate-erregistroaren akats materialei buruzko arrisuen balorazioa eta aipatutako araudiaren ez-betetze aipagarriak.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du gure fiskalizazio-iritzia emateko.

Legezketasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioaren emaitzatik honako iritzia eratortzen da.

#### *LEGEZKOTASUNAREN BETETZEARI BURUZKO IRITZIA*

Gure iritziak, aztertutako diru-laguntzen eragiketarako, Nafarroako Gobernuak 2014 ekitaldian emandakoei dagozkienak, bat datoz, alderdi esanguratsu guztietan, diru-laguntza publikoei buruzko araudiarekin.

---

<sup>1</sup> Oro har, 3.000 eurotik beherako zenbatekoa duten laguntzei dagozkie.

#### IV. OHARPENAK, EMANDAKO IRITZIAN ERAGINIK EZ DUTENAK, ETA GOMENDIOAK

Ondoren, egindako lanaren ondorioz lortutako ondorio edo oharpenak azaltzen ditugu, bai eta laguntza horien kudeaketa hobetze aldera emandako gomendioak ere. Oharpen horiek ez dute eraginik emandako iritzian.

##### IV.1. OHARRAK

1. Nafarroako Gobernuak ez du diru-laguntzei buruzko plan estrategikorik onetsi, departamentuen eta jarduketa-ildoen arabera xehakaturia eta hiru urterako indarrarekin, 11/2005 Foru Legeko 5. bis artikulua xedatzen duen bezala. Artikulu hori 2014ko apirilaren<sup>2</sup> sartu zen, lege horri egindako aldaketa batean.

2. Nafarroako Gobernuak 2011n aplikatutako aurrekontu-doikuntzen ondorioz, ikusi da data horretatik aurrera eta aztertutako ohiko laguntzei dagokienez, emandako kopuruek nabarmen egin dutela behera.

3. Oro har, 59/2013 Foru Dekretuko 3. artikuluan aipatzen diren baldintzak –hau da, jasotako diru-laguntzaren kopurua 20.000 eurotik gorakoa izatea edo negozio-zifraren nahiz urteko aurrekontuaren ehuneko 20koa izatea– betetzen dituzten entitate onuradunek aipatutako foru dekretuak 4. artikuluan ezartzen dituen gardentasuneko betebeharrak bete dituzte. Betebehar horiek erreferentzia egiten diote, funtsean, diru-laguntza ematen duen organoarekin ondokoak komunikatzeari: gobernu organoen osaera, kargudunak eta haien ordainsariak eta azkeneko urteko kontuak. Informazio hori Nafarroako Gobernuaren web-orrian argitaratzen da.

4. Laguntza horiek emateko araubidea, oro har, norgehiagoka eta banakako ebaluazioa izan dira. Hala eta guztiz ere, ikusi da, halaber, diru-laguntza izendun batzuk ere izan direla, zeinak, orokorrean, kasuko hitzarmena sinatuz bideratzen baitira.

5. Kasuko oinarri arautzaileak onesten dira, araudian ezarritako prozeduraren bitartez, organo emailearen, zerbitzu juridikoen eta kontu-hartzailetza delegatuaren behar diren txostenekin. Azken horri dagokionez, ikusi dugu eragozpen-oharrei buruzko txosten batzuk egin direla, bai oinarriak onesteko fasean eta haien deialdian, bai justifikazioaren eta ordainketaren fasean ere.

6. Ikusi da oinarri arautzaileak oso exhaustiboak direla betekizunei dagokienez, eta izapide administratibo ugari eskatzen dituztela, arduraldi eta zeregin bereziak eragiten dizkietenak bai organo emaileari, bai onuradunari ere; halaber, ikusi dugu nolabaiteko exijentzia badagoela, murriztapen eta muga batzuk ezarri baitira diru-laguntza diruz laguntzekoa den gastuaren bloke desberdinei aplikatzeari begira. Horren guztiaren testuinguruan nabarmen ageri dira aztertutako entitate onuradun gehienek ezaugarri diren baliabide administratiboak gabeziak, eta, kasu batzuetan, diru-laguntza gisa jasotako kopurua bera txikia dela.

7. Aztertutako deialdi guztiek badaukate, eta baldintza gisa exijitzen da, laguntzen onuraduna egunean egotea Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharretan; halere, ikusi dugu ezen, zenbait kudeaketa-zentroetan, laguntza eskatzeko fasean ere eskatu egiten zaiola. Gure ustez informazio hori aipatutako zentroen esku dago, haien barnean eta modu automatikoan; horrenbestez, ez litzateke eskatu beharko, gutxienez ere bigarren eskaera horretan, eta horrekin izapide administratiboak arindu egiten lirateke.

8. Deialdi guztietako abiapuntua da emandako laguntzek ez gainditzea diruz lagundutako jarduera, eta tresna batzuk eta dokumentazio jakin bat jasotzen da egiaztatzeko ez dagoela onuradunaren gehiegizko finantzaketarik, beste laguntza publiko batzuekiko bateragarriak diren ala ez adierazita. Hala eta guztiz ere, zenbat kasutan, ez dira zorrotz kontrolatzen onuradunak beste administrazio publiko batzuetatik jaso dituen ekarpenak, ez eta haren bestelako finantzabideak ere.

9. 2014ko abenduko Diru-laguntzei buruzko Foru Legearen aldaketak prozedurako bi nahasteren konponbidea ekarri du; hain zuzen ere, gure lanean jaso ditugu horiek. Zehazki:

---

<sup>2</sup> Aldaketa, zehazki, Diru-laguntzei buruzko Foru Legea aldatzen duen apirilaren 5/2014 Foru Legearen bidez egin zen.

- Onuradunari eskaintzen zaion aukera, aurkeztutako eskaerak birformulatzekoa, baldin eta azkenean emandako diru-laguntza txikiagoa bada hasierako eskaeran ageri dena baino, zertarako eta konpromisoak eta jarduerak egiazki emandako kopuruari egokitzeko.

- Behin diru-laguntzaren xedeak beteta, eta aplikatu gabeko gerakinak lortu direnean, diru-laguntza eman duen organoari eskatu ahalko zaio gerakinaren zati hori erabiltzeko diruz laguntzekoak diren izaera bera edo antzekoa duten bestelako jardueretan. Neurri horrekin onura bat egin nahi zaie beren kudeaketan efizienteak izan diren entitateei, eta horren bidez konponbidea eman nahi zaio gerakin hori automatikoki itzultzeko betebeharrari.

Horren aplikazio eraginkorra egiteko, exijitzen da aukera hori diru-laguntzaren oinarri arautzailetan berariaz jasota egotea.

10. Aztertutako diru-laguntzetatik batzuek beren ordainketa arautzen dute konturako ordainketen eta amaierako likidazio baten bitartez; likidazio hori amaieran egiten da eta, batzuetan, atzerapen handi samarrarekin. Jarduteko modu horrek berarekin ekartzen du, zenbait kasutan, aurkeztutako amaierako justifikazioan aurreratutakoa baino kopuru txikiagoko diru-laguntza ematea. Hori dela eta, itzulketa egiteko prozedura administratiboa hasi beharra dago, horrek dakarren zama burokratikoarekin, eta bai kasuko berandutza-interesak, bai, zenbaitetan, onuradunarentzako kudeaketa- eta finantza-zailtasunak sortzen dira.

11. 30.000 eurotik gorako –obren kasuan– eta 12.000 eurotik gorako –hornikuntzen eta laguntzaren kasuan– diru-laguntzen onuradunek justifikatu izan dute hirugarren hornitzaileak efizientzia- eta ekonomia-irizpideekin hautatu izana.

12. Ikusten dugu diru-laguntzen lineetako kreditu-gaindikinak deuseztatu egiten direla, behin haiek eman eta justifikatu ondoren. Mekanismo horren bidez, gerta daiteke interes orokorreko jarduera batzuk finantzatu gabe uztea eta, gainera, gorabehera batzuk sortzea –esate baterako, onuradunaren geroko erreklamazioak, ezin arta daitezkeenak, organo emaileak behar duen kreditua ez edukitzeagatik.

13. Ezarritako prozedurek bermatzen dute diru-laguntzaren edo laguntzaren kopurua ezin ordaintzea Foru Komunitateko Administrazioarekin zorrak dauzkaten onuradunei.

14. Ikusten dugu diru-laguntzak itzultzeko legezko mekanismoak aplikatu direla, bai diruz laguntzekoak ez diren gastuak justifikatzeagatik, bai adostutako jardueren gutzizkoa ez gauzatzeagatik ere.

15. Diru-laguntzak arautzen dituzten hitzarmenetan, ez dira beti betetzen haietan jasotako aurreikuspenak, hitzarmen horren aplikazioaren jarraipena egiteko batzorde bat eratzeari buruzkoak; hain zuzen ere, Administrazioaren eta ente onuradunaren ordezkariak osatutako batzordea.

16. Azkenik, aztertutako entitate onuradunen bideragarritasun finantzarioari dagokionez, Gambera honek nabarmentzen du bideragarritasun hori, gehienetan, Nafarroako Gobernuak emandako diru-laguntzen menpe dagoela. Halaber, ez dugu ahaztu behar diruz lagundutako jarduerak interes orokorreko xedeen barruan sartzen direla, eta entitate horiek botere publikoekin batera lan egiten dutela xede horiek lortzeko.

## IV.2. GOMENDIOAK

Aurreko ohar horiek aintzat hartuta, hona Kontuen Ganbera honek aholkatzen duena:

- *Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzei buruzko plan estrategikoa onestea, Gobernuak diru-laguntzetarako duen politika modu orokorrean egituratzeko garrantzizko tresna moduan, argi definituz zein diren departamentu bakoitzak bilatzen dituen helburuak eta jarduketa-ildoak, eta berraztertuz emandako diru-laguntza askoren egokitasuna eta arrazoizkotasuna, bai eta departamentuen arteko koherentzia ere. Hori guztia epe luzeko perspektiba batetik, eta urteko ebaluazio-tresnak sartuz.*

- *Oro har, diru-laguntzei buruzko deialdien sinplifikazio bat aztertzea, eraginkortasun eta arrazoizkotasun printzipioei begiratuta, bai organo kudeatzailearentzat, bai onuradunarentzat ere, eta oreka bat bilatuz jarraipen zein kontrolaren eta baldintza zein betekizun dokumentalen artean. Azterlan hori egin beharko litzateke kontuan hartuz aztertutako laguntzen hartzaile nagusiak baliabide administratibo eskasak dituzten entitateak direla, eta, gehienetan, emandako zenbatekoak ez direla munta handikoak.*

- *Mekanismo batzuk aztertzea ahalbidetze aldera, behinik behin interes orokorrekotzat jotzen diren kasu batzuetan, diru-laguntzetarako aurrekontu-lineei dagokien kreditu-gaindikina erabil ahal dadila entitate onuradunek jarduketa gehiago finantzatzeko, eman beharreko kopuruak birkalkulatuz, edo urgentziatzko beste deialdi batzuk onestea<sup>3</sup>.*

- *Organo emaileak bermatu beharko du lagundu beharreko jarduera ez dela gainfinantzatzen, kontuan hartuz bai emandako diru-laguntza bera, bai gainerako administrazio publikoen ekarpenak eta onuradunaren beraren baliabideak ere.*

- *Aurreko gomendioarekin lotuta, azter liteke, halaber, Diru-laguntza publikoen Atari bat sortzea, non Foru Komunitateko administrazioek emandako diru-laguntza guztiak jasoko diren, eta ez soilik Nafarroako Gobernuarenak<sup>4</sup>. Atari horrek, gardentasuna sustatzeaz gainera, erraztu egingen litzuke onuradunek jasotako finantzaketa publikoari buruzko kontrol publikoko lanak.*

- *Gogoeta egitea hitzarmenetan biltzen diren jarraipen-batzordeen egiazko baliagarritasunari buruz.*

Ignacio Cabeza del Salvador kontu-ikuskatzailea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean 2015eko irailaren 25ean

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas

---

<sup>3</sup> Horixe ezartzen du Diru-laguntzei buruzko Foru Legeko 2. xedapen gehigarriak gizarte entitateentzako diru-laguntzen kasuan.

<sup>4</sup> Web-gunean jasotzen dira, "Gobernu Irekiaren" barruan.

**ERANSKINA. AZTERTUTAKO DIRU-LAGUNTZAK ETA LAGUNTZAK**

Ondoren, aztertutako diru-laguntzak eta laguntzak zerrendatuko ditugu, haien organo kudeatzaileen arabera sailkatuak<sup>5</sup>, eta adierazita zein den 2014ko aurrekontuan aitortutako betebeharren zenbatekoa.

**A) Gizarte Gaietako Departamentua**

- Kontsumitzaileen elkarteak.

Kontsumitzaileen elkarteak	Zenbatekoa
Irache kontsumitzaileen elkartea.	13.054
Socofideco kontsumitzaileen elkartea	15.399
Santa M <sup>a</sup> La Real kontsumitzaileen elkartea	11.547
<b>Guztira</b>	<b>40.000</b>

**B) Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua.**

- Nafarroako Gazteriaren Kontseilua: 59.791 euro.
- Kirol federazioak.

Kirol-federazioak	Zenbatekoa
Nafarroako Pilota Federazioa	206.240
Nafarroako Saskibaloia Federazioa	162.139
Nafarroako Futbol Federazioa	149.385
Nafarroako Golf Federazioa	71.863
Nafarroako Karate Federazioa	62.777
Nafarroako Atletismo Federazioa	59.951
Nafarroako Bela Federazioa	22.291
Nafarroako Piraguismo Federazioa	17.113
<b>Guztira</b>	<b>751.759</b>

- Kirol klubak.

Kirol klubak	Zenbatekoa
Sociedad cultural deportivo recreativa Anaitasuna	222.142
Iruñeko Basket Navarra club	172.791
Club deportivo Xota (aretoko futbola)	170.023
Club Ribera Navarra (aretoko futbola)	142.830
Club deportivo Waterpolo Navarra	140.666
Club Pamplona Atlético	112.761
Club Deportivo Waterpolo 98 02	100.894
Club ciclista Urbasa	18.000
Club ciclista ADI	18.000
Club deportivo ciclista Erakurri	18.000
Club ciclista Joselín de Barañáin	17.960
Fundación Navarra de baloncesto Ardoi	15.545
<b>Guztira</b>	<b>1.149.612</b>

<sup>5</sup> Organo kudeatzaileen izena 2014ko ekitaldian indarrean zegoena da.



**C) Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutua**

- Tratu txarrak pairatutako emakumeen elkarteak: 6.000 euro (2013ko ekitaldian; 2014koan ez zitzairen ezer eman).

**D) Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentua**

- Kultur elkarteak eta arte-ikasketetarako beka.

Kultur elkarteak eta arte-ikasketetarako beka.	Zenbatekoa
Ateneo Navarro/Nafar Ateneoa	27.000
Asociación Tiza	25.000
Fundación Instituto Promoción Estudios Sociales IPES Elkarte	12.459
Villanueva Sáenz de Pipaon, Fermín	16.523
Villanueva Sáenz de Piapon, Isabel	14.669
Lameiro Garayoa, Carmen	14.252
Asociación Euskal Dantzarien Biltzarra	14.053
Manero Muro, María	13.204
Recalde Iglesias, María José	12.000
Bernad Asiáin, Clemente	10.750
Nieto Vera, Lucía	10.016
<b>Guztira</b>	<b>169.925</b>

- Nafarren etxeak eta Nafarroan egoitza duten erregio-etxeak

Nafarren etxeak eta Nafarroan egoitza duten erregio-etxeak	Zenbatekoa
Federación Nacional Hogares Navarros ("Día del Navarro Ausente")	20.000
Nafarroatik kanpoko nafarren etxeak (15 entitate)	40.000
Nafarroan egoitza duten erregio-etxeak	24.000
<b>Guztira</b>	<b>84.000</b>

- Turismo elkarteak

Turismo elkarteak	Zenbatekoa
Lizarrako Ostalaritza Elkarte	30.000
Aralar Mendi, kultura- eta kirol-elkarte	27.112
Cederna Garalur Elkarte	26.271
Irantzuko Turismo Elkarte	21.514
Nafarroako Elikagai Artisauen Elkarte	21.501
Nafarroako Almadiazainen Kultur Elkarte	16.974
<b>Guztira</b>	<b>143.371</b>

**E) Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentua:**

- Kontseilu arau-emaileak eta beste.

Kontseilu arauemaileak	Zenbatekoa
Nafarroako Ardoa Jatorrizko Deituraren Kontseilu Arauemailea	265.000
NNEK (Kontseilu Ekologikoa)	105.600
Nafarroako Aratxea Jatorrizko Deituraren Kontseilu Arauemailea	81.328
Nafarroako Arkumea Jatorrizko Deituraren Kontseilu Arauemailea	39.051
Nafarroako Zainzuria Jatorrizko Deituraren Kontseilu Arauemailea	37.784
Erronkariko Gazta Jatorrizko Deituraren Kontseilu Arauemailea	30.348
Errioxa Jatorrizko Deituraren Kontseilu Arauemailea	28.000
Nafarroako Elikagai Artisauen Elkarte	10.000
<b>Guztira</b>	<b>597.111</b>

- Oihangintza eta zurgintza elkarteak

Entitateak	Zenbatekoa
Foresna-Zurgaia. Nafarroako Oihan Elkarte	90.000
Ademán-Asociación empresarial Madera Navarra	27.000
<b>Guztira</b>	<b>117.000</b>

- UCAN-Nafarroako Nekazaritzako Kooperatiben Batasuna: 150.200 euro

**F) Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua**

- Polo Parkea Fundazioa: 105.000 euro.



